

Musika

Karliberalen errepublikara bidaiagerraren gorrian

Egin duela berriz ere: Joseba Tapiak II. Gerra Karlistako bertsoak hartu eta gaur eguneko doinuz jantzi ditu. *Eta tira eta tunba* du izena emaitzak: txapelgorrien eta pezeteroen arteko ezinikusiekin osatutako 22 pieza.

Testua eta argazkia:

GORKA BEREZIARTUA

LEHENENGO NOTATIK antzematen da desberdintasuna. Hori ez da trikitia, hori haizezko instrumenturen bat da, inondik ere. Hara hor lan osoaren ezaugarri nabarmenenetako bat: metalek daramatzate kantetako asko; soinu txikia ahotsaren laguntzaile doa da, ez du beste diskoetako protagonismorik. Zergatia, *Eta tira eta tunba* aurkeztean eman zuen Tapiak berak: garai hartan, II. Gerra Karlistan, trikitia asmatua izango bazen ere, ziurrenik gure artean gutxi gutxi zutela infernuko hauspoaren berri. Bestelakoak izan ziren erromeria odoltsu hartako musikak. Sua saxotu behar: bonbak, bombardinotu.

Emaitzak, egia da, badu garai bateko banden eitea, baina pieza batzuk lasai asko izan zitekeen Goran Bregovic batek sinatzeko modukoak ere. Gaur egungo diskoa da *Eta tira eta tunba*, edo, zailago esateko, atzokoaz gaur egindako disko atemporal. Erritmo sinkopatu ezagutuko ditugu batzuek besteen kontra kantatuak eta besteek batzuei emandako erantzunak.

Espiritu alprojako lana, aurkezpenaren ondotik argi ikusi zenez. Tapiak hiruzpalau kanta jo zituen gerturatu zirentzat, tartean diskoari izena ematen diona. Entzuleei, mesedez, hitzak errepikatze eskatu, eta “biba gure fedia Espainiakua” dioen partera iristean, irriño bana aurpegian abestu zuten gonbidatuek. Mezua gauza bat baita, interpretatzeko moduak, ordea, goitik behera mutarazten du. (Kontraerreformazale nonaionalistentzat oharra: hitzekin bat egin

arren, igual ez duzue maiteko Tapiaren jarduna. Ez esan gero, inork abisatu ez dizuenik).

Errepublika karliberala

Bi bando eta bi banda: karlistena (Iban Urizar, Ibon Irijoa, Asier Ituarte eta Ramontxo Vega) eta liberalena (Filipe Aldako, Alain Martineau, Mintxo Garaikoetxea eta Inazio Tolosa). Biak izan ditu lagun kantautoreak

diskoan. Aurkezpenaren kariaz su-eten txikia egin arren, aurrerantzean ere banda bakoitza bere bideetik ibiliko dira. Kontzertu batzuetan karlistekin ariko da Tapia, beste batzuetan liberalekin. Jokin Irungariren jazpana izango da bitartekari bakarra.

Ekidistantzia ote? Ez, oxymorona. Patxi Larrionen hitzetan “karliberalen pentsaera” islatzen dute lan honetako kantek. “Pentsaera karliberalik ez bada, agian asmatu egin beharko genuke” esan zuen aurkezpenean, eta diskoak “karliberal horien sinesmenak eta egindako hautuak ulertzen” lagunduko duela.

Euskal kantagintzan ia inork urratu gabeko bidea da behintzat. Tapiak, bromoso: “Harrituta nago nola ez didan inork aurrea hartu. Besteek egin, besteek gorde eta besteek bildutako altxor bat hartu eta entzungarri jarri dut. Biba ni!”. Gerra garaietako kantak ez baitira gehiegi berreskuratu gurean –36koaz Tapiak berak *Agur Intxorta maite* diskoan egindako lana, berriz ere salbuespen–, are gutxiago Karlistadetakoak. Disko hau izango ahal da antzeko proiektu berrien akuilu. ■



Joseba Tapiak karlisten eta liberalen bandak elkartu zituen joan den astean, *Eta tira eta tunba* diskoaren aurkezpenean.